

Eskolako
EGUTEGI
zientifikoa
2024

ASTELEHENA

1



1769 Marie-Louise Lachapelle emagina jaio zen. Obstetziako zuzendaria izan zen Hôtel-Dieu ospitalean, Parisko ospitalerik zaharrenean. Obstetziaria modernoaren amatzat hartu da bere irakaskizunengatik.

2



1972 Lillian Moller Gilbreth ingeniaria hil zen. Eraginkortasunean aditua zen, eta industria-ingeniaritza aztertzen lagundu zuen mugimenduaren eta giza faktoreen arloetan.

3



1873 Mary Strong Clemens botanikaria jaio zen. Flora-espezimenak arretaz bildu zituen bere bizitzan zehar, Filipinetako, Borneoko, Txinako, Australiako eta Ginea Berriko urruneko tokietan.

4



1883 Johanna Westerdijk fitopatologoa jaio zen. Besteak beste, *International Association of Botanists* erakundearen 80 bat ondo-laboreko bilduma mantentzeaz arduratu zen.

5




1943 George Washington Carver agronomo eta botanikaria hil zen. Kakahuetetik 300 produktu baino gehiago atera zituen elikagaietan eta industrian erabiltzeko.

6



1875 Harriette Chick mikrobiologo eta nutrizionista jaio zen. Elsie Dallyellekin batera, errakitismoa eragiten duen nutrizio-faktorea aurkitu zuen, eta nola sendatu eta prebenitu erakutsi zuen.

7



1894 William K. L. Dickson asmatzaileak patentea jaso zuen mugimendua zuen film zinematografiko baterako. 1895ean *Biograph Company* sortu zuen, bere garaiko zinema-estudio emankorrenetako bat.

8



1927 Virginia Tower Norwood fisikari aeroespazial eta asmatzailea jaio zen. Landsat programan parte hartu zuen, Landsat 1 satelitean lehen aldiz erabili zen espektrorik gabeko eskanerra diseinatzen.

9




1869 Richard Wilhelm Heinrich Abegg kimikaria jaio zen. Balentzia kimikoak konfigurazio elektronikoarekin zerikusia izan behar zuela esan zuen lehen ikertzailea izan zen.

10



1729 Lazzaro Spallanzani naturalista jaio zen. Digestioaren ikerketaren zale amorratua izan zen, eta frogatu zuen digestioa prozesu kimikoa dela eta ez mekanikoa, ordura arte uste zen bezala.

11



1892 Doris Holmes Blake entomologo eta ilustratzaile zientifikoa jaio zen. Krisemeliidoetan (hostoetako kakalardoak) aditua zen.

12



1917 Stella Vivian Cunliffe estatistikaria jaio zen. Erresuma Batuko Errege Estatistika Elkarteko buru izan zen lehen emakumea izan zen.

13



1913 Enedina Alves Marques ingeniari zibila jaio zen. Capivari, Cachoeira eta Iguazú ibaietako uraren aprobetxamenduan lan egin zuen, eta Capivari-Cachoeira zentral hidroelektrikoa (Brasil) eraiki zuen.

14



1901 Alfred Tarski logikaria jaio zen. Egun horretan bertan, baina 1978an, Kurt Gödel logikaria hil zen. Haien omenez, Logikaren Munduko Eguna ospatzen da urtariraren 14an.

15



WIKIPEDIA
Entziklopedia askea

2001 Ofizialki sortu zen **Wikipedia**, elkarlanean argitaratzen den entziklopedia aske eta poliglota. Wikimedia Fundazioak administratzen du, irabazi-asmorik gabeko erakunde.

16



2009 **Río Hortega Unibertsitate Ospitalea** (Valladolid) inauguratu zen, Pío del Río Hortega neurobiologoaren figura berreskuratzu. Haren ekarpenak gutxietsi batziren homosexualitateagatik.

17



1624 Guarino Guarini matematikari, idazle eta arkitektoa jaio zen. Matematika-liburuak idatzi zituen, esaterako Euklides adaeuctus, geometria deskribatzailearen lehen tratatu bat.

18



1779 Peter Mark Roget fisikari, matematikari, mediku, filologo eta lexikografoa jaio zen. Erretina iraunkorra aztertu zuen, marrazki bizidunen jatorria. Tesauro de palabras y frases inglesas lana argitaratu zuen.

19



1904 Lucy Weston Pickett kimikaria jaio zen. Ezaguna da X izpien kristalografiaren eta xurgapen ultramoreko espektroskopoiaren bidez molekula organikoak ikertzeagatik.

20



1943 Valentín Fuster kardiologoa jaio zen. Arteria koronarioa, arterioesclerosis eta tronbosiari buruzko ikerketak argitaratu ditu. Asturiasko Printzesa saria jaso zuen 1996an.

21



1935 Raye Jean Montague itsas-ingeniarria jaio zen. Ontzi militarrek ordenagailuz diseinatzeko lehen sistema sortu zuen, eta, hala, errotik aldatu zuen ontzi horiek egiteko eta erabiltzeko modua.

22




1855 Albert Neisser medikua jaio zen. *Neisseria gonorrhoeae* bakterioa aurkitu zuen, gonorea, sexu-transmisioko infekzioa sortzen duen eragilea.

23



1909 Tatiana Proskouriakoff arkeologoa jaio zen. Maien idazkera deszifratzen lagundu zuen, eta monumentuak datatzeko sistema bat proposatu zuen, piezen morfologian eta estilo eskultorikoan oinarrituta.

24



1809 Mariano de la Paz Graells jaio zen, XIX. mendeko zientzialari espainiar nabarmena. Natur Zientzien Museo Nazionaleko zuzendari izan zen eta zoologia aplikatuko proiektu baliotsuak abiarazi zituen.

25



1867 Adelaide Cabete medikua jaio zen. Beste emakume batzuk hezi zituen haurrak zaintzen eta emakumeen higielean, eta amatasun-ospitaleak irekitzea bultzatu zuen.

26



1886 Fidel Pagés medikua jaio zen, anestesia epiduralaren aitzindaria. Gazte hil zelako eta bere lana itzuli ez zelako, haren aurkikuntzak ezezagunak izan ziren urteetan.

27



1902 Margaret Walton Mayall astronomoa jaio zen. Fotometrian eta izar aldakorren espektromotetan lan egin zuen. Estatu Batuetako Izar Aldakorren Behatzaileen Elkarteko zuzendari ere izan zen.

28



1540 Ludolph van Ceulen matematikaria jaio zen. Kalkulugile bikaina zen, eta pi zenbakiaren balioa 35 zifra hamartar zehatzekin hurbiltzeagatik da ezaguna batez ere.

29



1881 Alice C. Evans mikrobiologoa jaio zen. Bruzelosia transmititzeko mekanismoa aurkitu zuen, eta behi-esnea pasteurizatzea gomendatu zuen gaixotasun hori saihesteko.

30



2019 Zientzia Zehatzen, Fisikoen eta Naturalen Errege Akademan omenaldia egin zitzaizen diktadura frankistan errepresaliatutako zazpi zientzialariri, eta diploma akademikoa itzuli zitzaizen.

31



1961 Ham xinpantzeak Mercury proiektuaren probamisia pilotatu zuen. Hala, kanpoko espaziora iritsi zen lehen hominidoa izan zen.

1

2

3

4


UMH Sapiens


Miguel Hernández Unibertsitateko ikerketa-taldeek eta adituek lortutako aurrerapenak eta emaitzak biltzen ditu 2013ko urtarriletik UMH Sapiens aldizkari digitalak, eta gizartearen interesekin eta gaurkotasanarekin lotzen ditu. Argitalpenaren helburua da erakundea osatzen duten lau campusetan egiten den ikerketa-lanaren berri ematea, ikertzaileentzako bozgorailua izatea eta publikoarekin elkartzeko zubia izatea.

Unibertsitate bereko komunikazioko profesionalek eta natura-zientziakin, teknologiarekin, artearekin, ingeniartzarekin, zientzia juridiko eta sozialekin, ekonomiarekin, fisikarekin, medikuntzarekin eta beste osasun-zientzia batzuekin lotutako hainbat arlotako kolaboratzaileek osatzen dute erredaktore-taldea.

<https://umhsapiens.com/numeros-antiores/>



ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
29	30	31	1  1851 Jaime Ferran bakteriologoa jaio zen. Txerto aitzindaria egin zuen koleraren aurka. Txerto hark, ordea, erabilera oso polemikoa izan zuen, eta 20 urte igaro behar izan ziren Ferran mundu osoan ezaguna izateko.	2  1922 Albert Schatz zientzialaria jaio zen. Selman Waksmanekin batera estreptomizina aminoglukosidoa aurkitu zuen, <i>Streptomyces griseus</i> bakteriotik isolatutako antibiotikoa.	3  1931 Olga M. Kozhova jaio zen. Baikak aintzirako hidrologiari eta ekologiari buruzko ikerketengatik da ezaguna. Aintziretako ekosistema hori arriskuan jartzen duten giza jarduerak ere aztertu zituen.	4  1929 Mary Coombs programatzailea jaio zen. LEOKonputagailuan lan egin zuen lehen emakumea izan zen, negozioetarako historiako lehen konputagailua.
5  1918 Cecily Tanner matematikari eta matematikaren historialaria jaio zen. Hasiera batean integrazioari buruz ikertu ondoren, batez ere matematikaren historian eta hezkuntzan aritu zen gero.	6  1996 Erresuma Batuak ikerketa-base bat transferitu zion Ukrainari Antartikan. Akademik Vernadsky du izena, eta Galindez uharteko (Wilhelm artxipelagoa) Punta Marina eremuan dago.	7  1871 Kiyoshi Shiga bakteriologoa jaio zen. <i>Shigella dysenteriae</i> bakterioa aurkitu zuen, disenteria infektziosoa eragiten duena, eta gaixotasun hori tratatzeko serum eraginkorra egin zuen.	8  1831 Rebecca Lee Crumpler erizain eta medikua jaio zen. Garai hartako aurreiritzei aurre eginez, 1864an medikuntzako titulua atera zuen lehen emakume afroamerikarra izan zen.	9  1892 Minna Jewell ur-ekologo eta zoologoa jaio zen. Ur gezako belakien inguruan egindako ikerketengatik da ezaguna.	10  1842 Agnes Mary Clerke astronomoa jaio zen. Mundu osoan ezagun egin zen 1885ean <i>A Popular History of Astronomy during the Nineteenth Century</i> izeneko bere tratatu sakona argitaratu zenean.	11  2005 Mary W. Jackson matematikari eta ingeniaria hil zen. NASAko lehen emakume ingeniaria beltza izan zen, eta agentzia horretan emakumeak sustatzea eta kontratatzea bultzatu zuen.
12  1819 Francisco Javier Balmis medikua hil zen. Errege Espedizio Filantropikoaren buru izan zen baztangaren txertoa Amerikan eta Filipinetan zabaltzeko.	13  1913 Marguerite Vogt birologoa jaio zen. Ikerketa Biologikoen Salk Institutuan poliomielitisari eta minbiziari buruz egindako ikerketengatik da ezaguna.	14  2003 Dolly ardia hil zen. 1996an, zelula heldu batetik klonatutako lehen ugaztuna izan zen.	15  1564 Galileo Galilei jaio zen. Bere lorpenen artean daude teleskopioa hobetzea, behaketa astronomiko ugari edo mugimenduaren lehen legea.	16  1514 Georg Joachim Rheticus jaio zen, matematikaria, astronomoa, teologoa, kartografoa, musika-tresnen egilea eta medikua. Kopernikoren ikaslea izan zen.	17  1928 Michiaki Takahashi birologoa jaio zen. Barizelaren aurkako lehen txertoa egin zuen. Oso ikerketa-lan zaila izan zen, barizela-zoster birusaren andui bizi ahuldu batetik abiatuta.	18  1877 Alice Grace Cook astronomo britainiarra jaio zen. Meteoritoen behaketengatik eta V603 Aquilae noba aurkitzeagatik da ezaguna.




1955 Mendelevio izeneko elementu kimikoa sintetizatu zuten Kaliforniako Unibertsitatean, Berkeleyn (AEB). Elementu kimiko horren izenak Dmitri Mendeléyev kimikaria dakarkigu gogora, funtsezkoa taula periodikoa sortzen.



1902 Katharine Way fisikaria jaio zen. Manhattan proiektuko taldeko kide izan zen, eta erreaktoreak diseinatzeko eta prozesu erradioaktiboetan lortutako datuak prozesatzeko lan egiten zuen bertan.



1962 Julio Rey Pastor hil zen. Geometria aljebraikoa eta geometria proiektiboa ikertu zituen, eta Europan bere garaiko matematikari garrantzitsuenetakoa bat izatea lortu zuen.



1796 Adolphe Quetelet jaio zen. Soziologiari metodo estatistikoa aplikatu zion eta obesitatearen neurtzeko gaur egun oraindik erabiltzen den gorputz-masaren indizea asmatu zuen.




1924 Allan McLeod Cormack fisikaria jaio zen. 1979an Nobel Saria jaso zuen, Godfrey Newbold Hounsfield ingeniariarekin batera, ordenagailuz lagundutako tomografia garatzeagatik.



1827 Lydia Becker sufragista eta zientzialari *amateurra* jaio zen. Botanika ikasi zuen eta astronomiaz ere interesatu zen, Charles Darwinekin korrespondentzia izanik.




1925 Ruth Benedict biokimikaria jaio zen. Bere senarrarekin batera fosforo-konposatu mota berezi bat aurkitu zuen, azido 2,3-bisfosfoglizerikoa, hemoglobinarean eta oxigenoaren arteko lotura.



1815 Agustín de Pedrayes matematikaria hil zen. Espainiaren ordezkaria izan zen pisuaren eta neurrien sistema metrikoa lantzen.




2011 Hartz Polarraren Nazioarteko lehen Eguna ospatu zen, Artikoa berotzearen ondorioz espezie horrek dituen zailtasunak hartarazteko.



1863 Gheorghe Marinescu medikaria jaio zen. Errumaniako neurologia-erakundearen sortzailea izateagatik da ezaguna. Santiago Ramón y Cajalek idatzita da *La célula nerviosa* Marinescuren obra bikainaren hitzaurrea.



2008 Gaixotasun Arraroen Europako lehen eguna. Ohiz kanpokoak izateagatik herritar askorentzat ikusezinak diren gaixotasunei buruz kontzientziatzea du helburu.



Deveras

Deveras aldizkaria lau hilean behin ateratzen da, eta Lehen Hezkuntzako ikasleen artean kultura zientifikoa, teknologikoa eta berrikuntzaren kultura sustatzea du helburu. Zenbaki bakoitzak gai bakarra du, eta eguneroko bizitzarekin lotutako gai zientifiko bat aztertzen du, diziplina anitzeko ikuspegiarekin. Argitaratutako artikulua guztiak berrikuntze-prozesu batetik pasatzen dira, originaltasuna eta sormena baloratzeke,

bai eta eduki zientifikoa ere, kalitatea ziurtatzeko betiere. 2008an sortu zen, eta Mexikoko Zientzia eta Teknologia Kontseiluak (Comecyt) argitaratzen du, Finantzaketa, Dibulgazioa eta Zabalkunde Zuzendaritzaren bitartez. Aldizkari honen bertsio inprimatua doan banatzen da Mexikoko Estatuko lehen mailako eskola publikoetan eta pribatuetan. Gainera, doan deskarga daiteke formatu digitalean.

<https://comecyt.edomex.gob.mx/deveras-revista-ciencia>

Hay química en mi entorno (Mayo-agosto 2023, Núm. 59, CE: 207/09/14/23-03) - Publicación gratuita

¡Que no se acabe el agave! (Enero-abril 2023, Núm. 58, CE: 207/09/14/23-01) - Publicación gratuita

Estas son las partes de un agave, ¡coméncelos conmiigo!

- Las raíces: son necesarias para alimentar al agave.
- La pifia: es el corazón del agave y se utiliza para elaborar diferentes bebidas, por ejemplo, el pulque, el tequila o el mezcal. También, se puede hacer agua miel, miel de agave, galletas, salsas, contenedores de agua y dulces muy ricos.
- Las pencas son enemas y carnosas, se utilizan para elaborar caramelos del hogar, postres, barbacoa, e incluso juguetes.
- Esquinas: salen de las hojas, y en algunos casos y lugares, se utilizan como clavos o agujas de coser.
- Hijuelos: cuando el agave empieza a madurar salen sus fillos, que en unos años crecerán muy alto.
- La flor: dura aproximadamente 20 días y la utilizan para hacer postres y platillos muy ricos. Sale cuando el agave empieza a envejecer.
- Quilte: es el tallo y es muy alto. Normalmente se utilizan para hacer comida deliciosa, postres y accesorios de moda.

Le contó a mi mamá lo que aprendí sobre el agave y ahora también jugamos a buscarlos cuando vamos camino a la escuela.

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
26	27	28	29	1 	2 	3 
				1955 Gregory Hillhouse kimikaria jaio zen. Trantsizio-metalak dituzten konposatu organometalikoak ikertu zituen, eta frogatu zuen, adibidez, nikelak loturak sortzen zituela nitrogenoa bezalako elementuekin.	1972 Donella Meadowsek eta bere laguntzaileek <i>Los límites de crecimiento</i> txostena argitaratu zuten. Ekonomiaren eta biztanleriaren hazkundera eusteko planetak dituen mugez ohartarazi zuten bertan.	1924 Ruth Hubbard jaio zen. Bere ikerketa-ibilbidean, ekarpen garrantzitsuak egin zituen ornodunetan eta ornogabeetan biokimika eta ikusmenaren fotokimika ulertzeko.
4 	5 	6 	7 	8 	9 	10 
1877 Garrett Augustus Morgan asmatzailea jaio zen. Gas-maskara berriz diseinatu zuen, suhiltzaileek gasik ez arnasteko, eta ohartarazpen-argia duen semaforo automatikoa patentatu zuen.	1885 Louise Pearce patologoa jaio zen. Loaren gaixotasuna (tripanosomiasi afrikarra) tratatzeko sendagai bat egiten parte hartu zuen. Erreferentziazko tratamendua izan zen hura 60ko hamarkadara arte.	1665 Philosophical Transactions of the Royal Society aldizkariaren lehen alea argitaratu zen Londresen. Munduko lehen aldizkari zientifiko da eta gaur egun aktibo jarraitzen du oraindik ere.	1912 Hego Poloaren aurkikuntza iragarri zuen Roald Amundsen esploratzaile norvegiarrak.	1820 Fernando VII ak Espainiako Inkisizioa kendu zuen. Erakunde erlijioso horrek hainbat mendetan mugatu zituen zientziaren aurrerapenak, liburuak zentsuratuz eta bere kredoaren aurkako teoriak jazarriz.	1934 Yuri Gagarin kosmonauta jaio zen. 1961ean, kanpoko espaziora bidaiatu zuen lehen pertsona izan zen.	1961 Laurel Blair Salton Clark zirujau aeronautikoa jaio zen. Columbia espazio-transbordadorearen istripuan hil zen, atmosferara itzuli zenean.
11 	12 	13 	14 	15 	16 	17 
1911 Julio Garavito Armero astronomo, matematikari eta ingeniaria hil zen. Bere ikerketak erabakigarriak izan ziren Kolonbian zientzia garatzeko. Ilargi-krater batek bere izena du 1970etik.	1824 Gustav Robert Kirchhoff fisikaria jaio zen. Zirkuitu elektrikoak, plaken teoria, optika, espektroskopia eta gorputz beltz baten erradiazio-igorpena aztertzen lagundu zuen.	1946 Joan Roughgarden ekologo ebolutiboa jaio zen. Koeboluzioari eta sexu-hautaketari buruzko ikerketengatik da ezaguna. <i>El arcoiris de la evolución</i> da bere obra ezagunena.	1928 Félix Rodríguez de la Fuente naturalista jaio zen, <i>El hombre y la Tierra</i> telesail arrakastatsuegatik da ezaguna. Haren grinak eta karismak eragina izan zuten natura babesteko politikan.	1994 ES1 asteroidea Lurretik 165.000 km-ra igaro zen, gure planetaren eta ilargiaren arteko distantziaren ia erdia. 28,5 metroko diametroa zuen, eta egun bat lehenago bakarrik detektatu zen.	1953 Richard Stallman programatzaile informatikoa jaio zen. Software librearen sortzailetzat jotzen da, GNU sistema eragilea merkaturatu baitzuen 1983an.	1993 Alexandre Quintanilha biofisikaria Santiago de la Espada Ordena Militarreko Ofizial Handi izendatu zuten. Merezimendu literario, zientifiko eta artistikoa sarritzen du Portugalgo domina horrek.

18



1910 Ikasketa Historikoen Zentroa sortu zen Madril, Ikasketak Handitzeko Batzordearen erakundeetako bat. Ramón Menéndez Pidal izan zen zuzendari ospetsuenetako bat.

19



1943 Mario Molina ingeniari kimiko eta Nobel sariduna jaio zen. Antartikako ozono-geruzako zuloaren arrazioak aurkitu zituen pertsonetako bat izan zen.

20



1890 Elizabeth Rona fisikari nuklearra jaio zen. Isotopo erradioaktiboekin egindako lanagatik da ezaguna.

21



1994 Indarrean sartu zen **Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa**. 200 bat herrialdek berretsi dute.

22



1938 Alejandra Jáidar fisikaria jaio zen. Fisika nuklearreko metodoak eta teknikak fisikaren beste eremu batzuetan analisitresna gisa aplikatzeko moduan oinarritu zen bere ikerketa.

23



1749 Pierre Simon Laplace jaio zen, Ilustrazioko zientzialari handienetako bat. Planeten mugimenduak egonkorak direla frogatu zuen, eta probabilitatearen teoria matematikoaren oinarriak ezarri zituen.

24



1934 Egil Robert Ørskov jaio zen, animalien nutrizioan ikertzailea. Azienda hausnarkarian metabolismo energetikoa eta proteinoaren egindako ekarpenengatik da ezaguna.

25



1878 Frances Glessner Lee auzitegiko medikua jaio zen. Kriminalistikan azterketa irauli zuen *Nutshell studies of unexplained deaths* (Heriotza esplikaezinen agertoki txikiak) deituriko dioramekin.

26



1926 Magdalena Moujan Otaño matematikaria jaio zen. Argentinako Energia Atomikoaren Batzorde Nazionalen parte hartu zuen eta Clementina ordenagailuarekin lan egin zuen lehenengoetako bat izan zen.

27



1913 Raissa L'vovna Berg genetista eta biologoa jaio zen. *Drosophila melanogaster* eulian herentziatzeko ezaugarriak eta herentziatzeko gaixotasunen populazioen genetika aztertu zituen, besteak beste.

28




1895 Lumière anaiek zinematografoa izeneko asmakuntza aurkeztu zuten jendaurrean Parisen (Frantzia).

29



1958 Nouriel Roubini ekonomialaria jaio zen. *Subprime* hipoteken finantza-krisiari buruz egin zituen iragarpenengatik da ezaguna. Ezkorra izatea leporatu bazioten ere, zehatzak izan ziren bere aurreikuspenak.

30



2010 Hadroi Talkagailu Handiak (LHC) lortu zuen partikulek 7 teraelektronvoltetan (TeV) talka egitea. Azeleragailu batean lortutako energiari handiena izan zen, Big Banga emulatuz.

31



1076 Abu Bakr Ibn al-Arabi alfaquija jaio zen. Lan ugari idatzi zituen teologiari eta jurisprudentziari buruz, eta haiekin zabaldu zituen bere garaiaren ekialdeko ezagutza juridikoak.

NaturalMente

Natur Zientzien Museo Nazionalaren (MNCN-CSIC) zientzia dibulgazioko aldizkari digitala da NaturalMente. Hilaren 15ean argitaratzen da martxoan, ekainean, irailean eta abenduan. Aurtengo martxoan hamar urte beteko ditu eta bere orrialdeetan, MNCNk antolatzen dituen ekitaldien eta erakusketen laburpenaz gain, hainbat autoreren artikulua argitaratzen dira, ingurumenari, espezieen ekologiarri, klima-aldaketari, ikerketari edo historia naturalari buruz hitz egiten

dutenak. Gainera, hainbat atal finko ditu: *Naturaka*, hezkuntza-jarduerak proposatzen dituen; *Breves de investigación*, museoak argitaratutako artikulua zientifikoak laburbiltzen dituen; edo *Naturaleza entre líneas*, literatura eta zientzia batzen dituen proposamena.

Laster gozatu ahal izango duzue aldizkari honen haurrentzako bertsioaz, Lehen Hezkuntzako neskato eta mutikoentzako izango dena.



<http://revista.mncn.csic.es/>



ASTELEHENA

1



1806 Anna Thynne itsas zoologoa jaio zen. Lehen itsas akuario orekatua eraki zuen. Inspirazio gisa balio izan zuen Londresko zoologikoko *Fish house*, munduko lehen akuario publikoa, eraikitzeko.

ASTEARTEA

2



1851 Antonio Casares kimikariak lortu zuen argi elektrikoa lehen aldiz sortzea Espainian. Santiagoko Unibertsitateko klaustroan egin zuen, arku elektrikoa erabiliz.

ASTEAZKENA

3



1934 Percy Shaw asmatzaileak patente-eskaera erregistratu zuen "katu-begia" errepideko erretroislatailearentzat. Gauetz gidatzea errazten du eta bide-segurtasuna hobetzen du adierazle horrek.

OSTEGUNA

4



1930 Shirley Winifred Jeffrey itsas biologoa jaio zen. Aitzindaria izan zen pigmentuak karakterizatzeko eta fitoplanktonaren azterketan aplikatzeko metodo kimikoak garatzen. C klorofila aurkitu zuen.

OSTIRALA

5



1949 Judith Resnik ingeniari eta astronauta jaio zen. Ingeniaritza elektrikoan eta softwarean lan egin zuen, eta ingeniaritza biomedikoko ikerketetan ere lagundu zuen.

LARUNBATA

6



1869 Historia Naturaleko Museo Amerikarra (New York) sortzeko proiektua sinatu zuen. Munduko museo zientifiko handienetako bat da, 32 milioi espeziimen baino gehiago baititu.

IGANDEA

7



1969 Steve Crocker ingeniariak –Los Angeleseko Kaliforniako Unibertsitatekoa (UCLA)– *Host software* dokumentua argitaratu zuen, gaur egungo Interneten abiapuntutzat hartzen dena.

8




1883 Muriel Robertson bakteriologoa jaio zen. Erakutsi zuen *Trypanosoma gambiense* parasitoak, loaren gaixotasuna eragiten duenak, proteina-estaldura aldatzen duela, eta oso zaila dela txertoak sortzea.

9



1869 Élie Joseph Cartan matematikaria jaio zen. Lie talde-teorian eta haren erabilera geometrikoetan aritu zen lanean. Ekarpenak egin zizkion fisika matematikoari, geometria diferentzialari eta talde-teoriari.

10



2019 Event Horizon Telescope taldeak Messier 87 galaxiaren erdian dagoen zulo beltz baten lehen irudia argitaratu zuen.

11



1912 Graziela Maciel Barroso botanikaria jaio zen. Brasilen "Botanikako Lehen Dama" deitzen zioten, eta landare sistematikaren arloan ikertu zuen bereziki.

12



1911 Rita Fernández Queimadelos arkitektoa jaio zen. Espainian emakume batek inoiz izan ez zituen karguak bete zituen, hala nola udal arkitektoa edo probintziako eskola-arkitektoa.

13



1941 Annie Jump Cannon astronomo estatubatuarra hil zen. Haren katalogazio-lana funtsezkoa izan zen egungo izarren sailkapenerako.

14




1899 Branca Edmée Marques de Sousa Torres kimikaria jaio zen. Barioari buruzko doktoretzia defendatu zuen Sorbona Unibertsitatean 1935ean. Marie Curie eta André-Louis Debierne izan ziren zuzendariak.

15



1810 Joaquín Fernando Garay de Oca biologoa hil zen. Patataren laborantza sartu zuen Espainian 1793 inguruan. Aragoi Garaian nekazaritzako baliabideen kudeaketa hobetzeko ere egin zuen lan.

16




1728 Joseph Black mediku eta kimikaria jaio zen. Magnesioa, bero sorra, bero espezifiko eta karbono dioxidoa aurkitu zituelako da ezaguna.

17



1887 Stefanie Horowitz kimikaria jaio zen. Lehen Mundu Gerran Vienako Irratiaren Institutuan lan egin zuen, eta berunaren eta torioaren isotopoak zeudela baieztatu zuen.

18



1896 Santiago Ramón y Cajal Parisko Biologia Elkartearen Fauvelle Saria jaso zuen, nazioarteko bere sari ugarietako bat, hala nola Helmholtz Domina edo Mosku eta Nobel sariak.

19



1971 Lehen estazio espazialaren jaurtiketa: **Salyut 1**. 175 egun eman zituen orbitan, altuerari eutsi ahal izateko erregai ia agortu arte.

20



1973 Montserrat Calleja fisikaria jaio zen. Bionanomekanikan aditua zen, zelulen propietate mekanikoak eta minbiziarekin duten erlazioa ikertu zituen eta biosentzore nanomekanikoak egin zituen.

21



2012 Biodibertsitateari eta Zerbitzu Ekosistemikoei buruzko Gobernuen arteko Plataforma (IPBES) sortu zen formalki. Dibertsitate biologikoaren kontserbazioa eta erabilera jasangarria daude haren helburuen artean.



22 1970 Lehen aldiz ospatu zen **Lurraren Eguna**. Haren helburua da mundu osoak hartzea planetako arazoak buruzko kontzientzia, hala nola gainpopulazioari, kutsadurari eta berotze globalari buruzkoa.



23 1924 **María von Wedemeyer** informatikaria jaio zen. Oso garrantzitsua izan zen konputazioko emulazio-gaitasuna garatzeko lanean.



24 1877 **Marie Charlotte Brockmann-Jerosch** botanikaria jaio zen. Alpeetako florari eta filogeografiari buruz egin zituen ikerketa garrantzitsuengatik da ezaguna.



25 2014 10 urteko ahaleginen ondoren, **tse-tse euliaren genomaren sekuentziazioa** amaitu zuen. Loaren gaixotasunaren transmisioan parte hartzen duen bakteroa da euli hori.



26 1896 **Sébastienne Guyot** ingeniari aeronautikoa jaio zen. Bi motorreko hegazkin txiki bat diseinatu eta eraikitzen lagundu zuen 1924an, bai eta hainbat hidrohegazkinen fuselajeak eta kaskoak diseinatzan ere.



27 1880 **Francis D. Clarke** eta **M.G. Fosterrek** hezur-eroapena erabiltzen zuen audifono elektriko baten patentea lortu zuten. Hala ere, 1901era arte ez zen egin lehen audifono komertziala, *Acousticon* izeneko.



28 1932 **John Cockcroft** eta **Ernest Walton** fisikariek iragarri zuten lortu zutela nukleo atomiko bat artifizialki azeleratutako partikula subatomikoekin desintegratzea.



29 1785 **Karl Drais** asmatzailea jaio zen. *Laufmaschine* asmatu zuen —korrika egiteko makina—, eta gero draisiana deitu zioten, belozipedoaren (bizikletaren) aitzindaria.



30 1864 **Maria Gordon** geologo eta paleontologoa jaio zen. Dolomitak mendikatea (Italia) ikertu zuen eta haren jatorriari buruzko ideiarri aurre egin zion, lurrazaleko tortsioaren teoriarekin.



Principia Kids

Principia aldizkaria 2014ko azaroan sortu zen, «zientzia kontatu eta margotzeko» asmoz. Aldizkari hori egiten duen taldea ziur dago ez daudela bi kultura, baizik eta bakarra eta beharrezkoa, non zientziak eta humanitateak lotuta dauden, paperaren gainean tinta bezala.

2015eko abendutik argitaratzen dute Principia Kids aldizkaria, hurreri zuzendua. Diseinu zaindua du, eta bertan ilustrazioak protagonismoa hartzen du zientziarekin batera. Sormen-koktel

egokia, dudarik gabe, jakin-mina bizirik iraunarazteko eta familian gozatzeko. Euren webgunean dozenaka ipuin dituzte “ausartentzat”, eta, gainera, emakume aitzindariari buruzko komiki-bilduma bat argitaratu dute. YouTubeko kanal bat ere badute, zientzia-esperimentuen bideoak eta zientzia-audioipuinak biltzen dituen. Kanal inklusiboa da, eta zientzia hurbildu nahi die dibertsitate funtzionala eta ikusmen-urritasuna duten haurrei.

<https://principia.io/kids/>



ASTELEHENA

29

ASTEARTEA

30

ASTEAZKENA

1



1922 Alexander Flemingek lisozimaren aurkikuntza argitaratu zuen. Lisozima bakterioen aurkako propietateak dituen proteina da, eta muki-jariakineta eta maltoetan dago.

OSTEGUNA

2



1907 José García Santesmases fisikaria eta informatikaren aitzindaria jaio zen. Buru izan zen lehen konputagailu analogikoaren eta Espainian fabrikatutako lehen mikroprozesadorearen eraikuntzan.

OSTIRALA

3



1877 Franz Nopcsa arkeologo, antropologo eta geologoa jaio zen. Paleobiologiaren sortzaileetako bat da, paleontologiaren dibisioetako bat, tafonomiarekin eta biokronologiarekin batera.

LARUNBATA

4



2012 A Coruñaako Zientzia eta Teknologia Museo Nazionala (MuNCYT) inauguratu zen. Orduz geroztik, erreferente soziala eta topagunea da zientziaren eta teknologiaren arloetan.

IGANDEA

5



1804 Antonio José de Cavanilles naturalista eta botanikaria hil zen. Linneoren prozedura taxonomikoak erabili zituen Espainiako lehen zientzialarietako bat izan zen.

6



1859 Alexander von Humboldt hil zen. Pentsamendu ekologikoan aitzindaria izan zen, eta natura-zientziei, batez ere geografia botanikoari, egindako ekarpenengatik da ezaguna.

7



1938 Gillian Fiona Laundon mikologoa jaio zen. Gorrinei buruz (landareen onddo patogenoak) egindako ikerketengatik, eta esporen terminologiarako sistema berria sortzeagatik da ezaguna.

8



1874 Howard Carter arkeologo eta egiptologoa jaio zen. KV62 hilobia aurkitu zuen Erreegen Haranean, non Tutankamon zegoen lurperatua, XVIII. dinastiako faraoia.

9



1866 Elizabeth Magie asmatzaile eta joko-diseinatzailea jaio zen. Haren *The Landlord's Game* jokoa Monopolyaren aitzindaria izan zen, non higiezinaren errentariaren zapalkuntza saltzen zuen.

10



1917 Julie Sulianti Saroso medikua jaio zen. Komunitate kaltebereri kalitatezko arreta medikoa eskuratzen lagundu zien, eta familia-plangintzari buruzko hezkuntza Indonesiara eramaten lagundu zuen.

11



1906 Odón de Buenek publikoari irekitako lehen ozeanografia-eskola eman zuen Espainian. Akuario ugari jarri zituen Madrilgo Ateneoan egin zen itsas biologiar buruzko ikastaroa ilustratzeko.

12



1551 Gaur egun Universidad Nacional Mayor de San Marcos izenaz ezagutzen dena sortu zen Liman (Peru). Amerika osoko unibertsitatearik zaharrena da.

13




1699 Sebastião José de Carvalho e Mello estatu-politikaria jaio zen. Lisboako lurrikara handiaren ondoren, gertaera berreraikitzeo aukera ematen zuen inkesta egin zuen, eta sismologia zientzia gisa aintzatestea lortu zuen.

14



1856 Julia Dempsey erizaina jaio zen. "Maria Jose ahizparen nodulua" aurkitu zuen, zilborreko lesioa, pelbiseko edo sabeleko minbizi gaizto baten metastasia adierazten duena.

15



1859 Pierre Curie fisikaria jaio zen. Erradioaktibitate ikertzen aitzindaria izan zen eta Fisikako Nobel saria jaso zuen Marie Skłodowska-Curie emaztearekin eta Antoine Henri Becquerelarekin batera.

16




1884 Angelo Moriondo asmatzaile eta enpresaburuak kafe espresoaren lehen makina modernoa patentatu zuen. Makina hura Turingo Erakusketa Orokorrean aurkeztu zuten urte hartan.

17



1930 Christiane Bonnelle fisikaria jaio zen. Aitzindaria izan zen X izpien espektroskopian. Lantanimoei eta aktinidoei buruz ikerketak egin zituen, bai eta solido/solido interfazei buruz ere.

18



2024 Landareekiko Liluraren Eguna. Botanikak, nekazaritzak eta landare-jatorriko elikagaien ekoizpen jasangarriak jendea erakartzea du helburu.

19



1974 Rubik kuboa sortu zen. Harekin, Ernő Rubik eskultore eta arkitekture-irakasleak objektu mekaniko manipulagarri bat eraiki nahi zuen, bere ikasleei laguntzeko hiru dimentsioko geometria hobeto ulertzen.



1878 Blas Cabrera fisikaria jaio zen. Ikasketak Zabaltzeko Batzordearen Ikerketa Fisikoen Laborategia zuzendu zuen, eta erreferente handia da magnetismoaren arloan.



1860 Willem Einthoven medikua jaio zen. Nobel Saria jaso zuen elektrokardiografoaren garapenean eta aplikazio klinikoan egindako ekarpen handiengatik.



2024 Dibertsitate Biologikoaren Nazioarteko Eguna. Helburua da herritarrak eta estatuak biodibertsitateari buruzko gaien inguruan informatzea eta kontzientziatzea.



2009 M. Ann Chapman limnologia hil zen. Antartikara egindako espedizio zientifiko bat zuzendu zuen lehen emakumea izan zen. Haren omenez jarri zioten izena Antartikako Chapman lakuari.



1789 Betsi Cadwaladr erizaina jaio zen. Bidaia-ontzietan hasi zen erizain gisa lanean, eta gero Krimeako Gerran, Florence Nightingalerekin batera.



1947 Catherine Gody Wolf psikologo eta konputazioan aditua jaio zen. Ehundik gora ikerketa-artikulu idatzi zituen pertsona/konputagailua elkarrenginaren eta adimen artifizialaren arloetan.




1946 Leslie C. Aiello paleoantropologoa jaio zen. Peter Wheelerekin batera ehun geroa geroiaren hipotesia garatu zuen giza garunak eboluzioan zehar hartu zuen tamaina handia azaltzeko.



2021 María Teresa Miras Portugal hil zen, Espainian Errege Akademia baten buru izan zen lehen emakumea. Nukleotidoen hartzaileak eta gaiotasun neurodegeneratiboetan duten eragina aztertu zituen.



2023 Harald zur Hausen mediku eta Nobel sariduna hil zen. Deskubritu zuen giza papilomaren birusa zela umetokilepoko minbiziaren kausa nagusia.



1919 Eguzki-eclipse batean, Albert Einsteinen erlatibitatearen teoria enpirikoki berretsi zuen esperimientua egin zuen **Arthur Eddington** astrofisikariak.




1975 Europako Espazio Agentzia (ESA) sortzeko hitzarmena sinatu zen. Satelite bidezko zientzia-programak abiaraztea da haren helburu nagusia.



1995 Emilio García Gómez filologo eta arabista hil zen, Granadako Arabiar Ikasketen Eskolako lehen zuzendaria. Komunikazio eta Humanitateen Asturiasko Printzesa saria jaso zuen 1992an.



1





2

















IAA Información y Actualidad Astronómica

“IAA: Información y Actualidad Astronómica” aldizkaria Andaluziako Astrofisika Institutuak (IAA-CSIC) argitaratu eta doan banatzen du. Lau hilean behin argitaratzen da, otsailean, uztaila eta urrian. Gaur egun dagoen ikerketa-zentro batean sortutako zientzia-dibulgazioko aldizkari gutxi eta luzeenetako bat da, ia hogeita lau urteko bizitza horren erakusgarri. 2000ko ekainean argitaratu zen astronomiari buruzko zientzia-dibulgazioko aldizkari honen lehen alea.

Orduz geroztik, formatua aldatu du, eta, erreportajeaz eta gaurkotasuneko albisteez gain, zientziaren historiari, zientzian oraindik ezagutzen ez denari (“Pilares e incertidumbres”) edo astrofisikan aritzen direnen karrera markatu dezaketen objektu zehatzetzi (“El Moby Dick de...”) buruzko atalak ditu.

<https://revista.iaa.es/>



ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
27	28	29	30	31	1	2
						
					1924 Pasteur Institutuak tuberkulosiaren aurkako BCG txertoa ekoizteko eta doan banatzeko lehen zentroa sortu zuen.	1945 Maria Rosa Miracle ekologo eta limnolago aitzindaria jaio zen. Ekologiako lehen emakume katedraduna izan zen Espainian (1981) eta Espainiako Limnologia Elkarteko lehen presidentea (1993-2002).
3	4	5	6	7	8	9
						
1906 Benjamin Bowden diseinatzaile industrial jaio zen. Berrikuntza handiak egin zituen automobilen eta bizikleten industrian. <i>Spacelander</i> bizikleta futurista da haren diseinu ezagunena.	1945 Mario Rizzetto birologoa jaio zen. Delta antigenoa identifikatu zuen, agente biriko berri baten, hauxe da, delta hepatitisaren birusaren (VHD) osagai proteikoa.	1891 Hélène Sparrow mediku eta bakteriologoa jaio zen. Osasun publikoaren tratamenduan aitzindaria izan zen maila globalean, eta tifusaren aurkako lehen txertoa garatzen lan egin zuen.	1959 Francisco Bozinovic biologoa jaio zen. Biologia integratiboaren kontzeptua garatu zuen. <i>Dromiciops bozinovici</i> mendiko tximino espeziari bere omenez jarri zioten izen hori.	1907 Arturo Belleza Rotor medikua jaio zen. Rotor sindromea deskribatu zuen. Gaixotasun hereditario onbera da, eta biliirubina-kontzentrazio handiak sortzen ditu odolean.	1966 Lynn Margulise bere <i>On the Origin of Mitosing Cells</i> lana bidali zuen argitaratzeko. Biologo hau mundu osoan da ezaguna zelula eukariotoen jatorriari buruz egin zituen ikerketengatik.	1994 Emakume Informatikari Grace Hopper egunaren ospakizunaren lehen edizioa egin zen. Anita Borg zientzialariak sustatua, emakume Informatikari munduko bilera handiena da.
10	11	12	13	14	15	16
						
1914 Margot Becke-Goehring kimikaria jaio zen. Oso nabarmena da tetrasulfureturanituroari (S ₄ N ₄) buruz egin zuen lana. Gainera, heptasulfuro imida (S ₇ NH) aurkitu zuen.	1860 Mary J. Rathbun itsas zoologoa jaio zen. Smithsonian Institutuan lan egin zuen, eta bertan itsas ornogabeak aztertu eta katalogatu zituen, espezie berri ugari deskribatuz.	1899 Fritz Albert Lipmann biokimikaria jaio zen. A koentzimaren aurkitzaileetako bat izan zen. Horregatik, Fisiologia edo Medikuntzako Nobel saria jaso zuen, Hans Adolf Krebskin batera.	1870 Jules Bordet mikrobiologoa jaio zen. <i>Bordetella pertussis</i> bakterioa aurkitu zuen, kukutxetula sortzen duena, goiko arnasbideetako arnas-gaixotasun oso akutua.	1868 Karl Landsteiner biologoa jaio zen. Odol-taldeak aurkitu eta identifikatu zituen, eta Nobel Saria jaso zuen horregatik.	2009 Wolfson Saria jaso zuen Winfred Mary Beardek , zibilizazio erromatarren azterketan adituak. Dibulgatzaile handi honen liburuek publiko zabalari hurbildu dizkiote klasikoak.	1869 Henry Roscoe kimikariak lehen aldiz iragarri zuen banadio puruaren isolamendua.

ASTELEHENA

1



1903 Gladys Anderson Emerson biokimikaria eta nutrizionista jaio zen. Herbert Evans eta Oliver Emersonekin batera E bitamina garbia isolatu zuen.

ASTEARTEA

2



1936 Donald Palmquist animalien nutrizioan ikertzailea jaio zen. Metabolismo lipidikoan aditua zen, eta esne-behien elikadura hobetzeko estrategia berriak landu zituen.

ASTEAZKENA

3



1887 Hendrika Johanna van Leeuwen fisikaria jaio zen. Magnetismoaren teoriari egindako ekarpen goiztiarregatik da ezaguna.

OSTEGUNA


4



1475 Antonio de Nebrija gramatikari eta humanistak kontratua sinatu zuen Salamancako Unibertsitateko irakurle gisa. Bertan egunean bi ikasgai emateko konpromisoa hartu zuen: Elokuentzia eta Poesia.

OSTIRALA


5



1871 Miguel Asín Palacios arabista jaio zen. Filosofia islamiarra aztertutako, bai eta kultura islamiarra eta kultura kristaua lotu zituzten harremanak ere.

LARUNBATA

6



1998 Martera bidali zuten **Nozomi** zunda japoniarra. Sistema elektrikoan izandako akats batzuen ondorioz, ezinezkoa izan zen planeta horren orbitara iristea.

IGANDEA

7




1924 Jean Valentine kode deszifratzailea jaio zen. Bigarren Mundu Gerran, Bletchley Parken lan egin zuen kode matematikoak deszifratzen, komunikazio alemaniarrek atzemateko.

8



1900 George Antheil pianista jaio zen. Hedy Lamarr ingeniari eta aktorearekin batera, distantzia luzeko haririk gabeko komunikazio-sistema bat patentatu zuen, wifiaien aitzindariatzat jotzen dena.

9



1879 Carlos Chagas medikua jaio zen. Gaixotasun infektzioso berri bat aurkitu zuen, tripanosomiasi amerikarra, eta haren patogenoa, bektorea, adierazpen klinikoak eta epidemiologia deskribatu zituen.

10



1891 Edith Hinkley Quimby fisikari eta ikertzaile medikoa jaio zen. Pazienteen ehunetan erradiozio-kantitatearen banaketa zehaztu zuen lehen pertsonetako bat izan zen.

11



1987 NBEk egindako kalkuluen arabera, Lurra planeta **bost mila milioi biztanlera** iritsi zen egun hartan. Gaur egun zortzi mila milioitik gora ditu.

12



1913 Mildred Cohn biokimikaria jaio zen. Aitzindaria izan zen erresonantzia magnetiko nuklearra erabiltzen erreakzio entzimatoako aztertzeke, bereziki adenosin trifosfatoan.

13



1981 Niveen Khashab kimikaria jaio zen. Material hibrido adimendunetan eta zelula barneko jarduera antioxidatzailea monitorizatzeke tekniketaren egindako lan berritzailegatik da ezaguna.

14



1911 Gertrude Scharff Goldhaber fisikaria jaio zen. Neutroi-protoi eta neutroi-nukleo erreakzioen sekzio eraginkorrak aztertutako, bai eta gamma erradiozioaren emisioa eta nukleoeek xurgatzea ere.

15



1915 Albert Ghiorso kimikaria jaio zen. Amerizioa, kurioa, berkelioa, kalifornia, einstenioa, fermioa, mendelebioa, nobelioa, lawrentzioa, rutherfordioa, dubnioa eta seaborgioa aurkitu zituen lankidetzan.

16



1969 Apolo 11 misio espazial historikoa aieratu zen. Handik lau egunera, Neil Armstrongek eta Buzz Aldrinek larrigaren gainazalean jarri zuten oina, Michael Collins aginte-moduluan hegan ari zen bitartean.

17



1959 Paranthropus boisei hominidoaren lehen aztarna ezagunak aurkitu zituen Mary Leakey antropologoak. Aurkikuntza hura Olduvai arroilan egin zen (Tanzaniako Errepublikak Batua).

18



1905 Mary Sears jaio zen, II. Mundu Gerran AEBtako Itsas Armadako lehen ozeanografia-unitateko komandantea. Zientzialari gisa, ozeanografia modernoaren oinarriak ezarri zituen.

19



1927 María Josefa Wonenburger Planells matematikaria jaio zen, talde-teorian eta Lieren aljebren teorian ikertzailea. Fullbright beka lortu zuen lehen emakume espainiarra izan zen.

20



1890 Julie Marie Vinter Hansen astronomoa jaio zen. Oso ezaguna izan zen planeta txikien eta kometen orbiten kalkulu zehatzengatik.

21



1904 Transiberiar trenbidea inauguratu zen. Haren linea nagusiak 9.288 km ditu eta Mosku eta Vladivostok lotzen ditu, Japoniako itsasoan. Erronka handia izan zen garai hartako ingeniariarentzat.

22 π

2024 Pi-ren Hurbilketa Eguna. 22/7 frakzioa 4,1428... da, beraz, gaur da π zenbakira gehien hurbiltzen den urteko eguna.

23



1852 Martina Castells i Ballepí medikua jaio zen. Espainian Medikuntzan matrikulatu (1877) eta lizentziatu (1882) zen lehen hiru emakumeetako bat izan zen.

24



1918 Picos de Europa (Europako Mendien) mendebaldeko mendigunea Espainiako lehenengo naturagune babestu bihurtu zen, **“Covadongako Mendiko Parke Nazionala”** izenarekin.

25



2022 Gretchen C. Daily ekologo eta irakasleak Ekologiako Ramon Margalef Ekologia Saria jaso zuen. Erabakiak hartzean naturaren balioak aintzat hartzeagatik da ezaguna.

26




La Felgueran (Asturias) **Duro y Compañía** fabrikaren obrak hasi ziren. Espainiako siderurgia-zentro garrantzitsuenaz izatera iritsi zen. Hispania Nostraren Ondarearen Zerrrenda Gorrian dago.

27



1907 Irene Fischer matematikaria jaio zen. Mercury eta Apolo misio espazialen urrezko aroan geodesiaren alorrean nazioartean ospe handia lortu zuen zientzialarietako bat izan zen.

28




2024 Hepatitisaren Munduko Eguna. Helburua da hepatitis birikoei buruz kontzientziatzea. Gibela hazi eta gibeledko gaixotasun larriak eta gibeledko minbizia eragiten dituzte hepatitisek.

29



1994 Dorothy Crowfoot Hodgkin Nobel sariduna hil zen. Penizilinaren eta intsulinararen molekulen hiru dimentsioko egitura zehaztu zuen. 3D egitura funtsezkoa da haien funtzioak ulertzeko.

30



1916 Albert Neisser medikua hil zen. *Neisseria gonorrhoeae* bakterioa aurkitu zuen, gonorrea, sexu-transmisioko infekzioa sortzen duen eragilea.

31



1904 Thomas Lecky agronomoa jaio zen. Behien hazkuntzari eta hobekuntzari buruz egin zituen ikerketek arraza berriak ekarri zituzten, Jamaikako baldintza klimatikoetara ongi egokitzen zirenak.

1

2

3

4

KIDS.CSIC

CSICen estatu-mailako programa da El CSIC en la Escuela, eta ikertzaileen eta irakasleen arteko elkarlana bultzatzen du. Programaren helburua da zientziaren irakaskuntza hezkuntzaren lehen etapetatik sartzea. Izan ere, programa horren ikerketa-ildo baten ardatza da adin egokia zein den bereiztea Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrek kontzeptu jakin batzuk berenganatzeko. Horregatik, KIDS.CSIC web-plataforma ezarri dute, gizateriaren historian paradigma-aldaketa ekarri duten aurkikuntzetatik abiatuta, kultura zientifikoa sustatzeko diseinatu diren

jarduerekin, filmekin eta istorioekin, zientziarekiko maitasuna eta jakin-mina pizteko (pentsamenduaren abentura gisa aurkeztuta) eta gure kulturaren jatorria ezagutzeko. Plataforma horrek irakasleentzako gida ez ezik, gurasoentzako beste bat ere badu, etxeetatik bertatik erabili ahal izateko hezkuntza-baliabide seguru, fidagarri eta dibertigarri horiek.

<https://www.kids.csic.es/>



ASTELEHENA

29

ASTEARTEA

30

ASTEAZKENA

31

OSTEGUNA

1



1818 Maria Mitchell astronomo eta liburuzaina jaio zen. Mitchell kometa aurkitu zuen, eta astronomo profesional gisa lan egiteagatik nazioartean ezagun egin zen lehen emakumea izan zen.

OSTIRALA

2



1922 Jordi Sabater Pi primatologoa jaio zen. Animalien jokabideak aztertzen aditua zen, eta hainbat espezieren portaera kulturalak zehatz azaldu zituen.

LARUNBATA

3



1959 Kōichi Tanaka ingeniari kimikoa jaio zen. Makromolekulak masa-espektrometriaren bidez identifikatzeko eta egiturak aztertzeko metodoak garatzeagatik da ezaguna.

IGANDEA

4



1906 Eugen Schuhmacher zoologoa jaio zen. Aitzindarietako bat izan zen animaliei buruzko dokumentalen arloan.

5



1872 Oswaldo Cruz zientzialaria jaio zen. Brasilen gaixotasun tropikalak aztertzen aitzindaria izan zen, eta biziki lan egin zuen gaixotasun horiek kontrolatzen eta desagerrarazten.

6



1905 María Montserrat Capdevila d'Oriola matematikaria jaio zen. 1931n, Bartzelonako Unibertsitateko lehen unibertsitate-irakasle matematikaria bihurtu zen.

7



1735 Claudine Picardet itzultzaile zientifikoa jaio zen. Gutxienez lau hizkuntzatatik (suediera, ingelesa, alemana eta italiara, eta agian latina) hogeitabat kimikari eta mineralogistaren lanak itzuli zituen frantsesera.

8



1901 Miriam Friedman Menkin biologoa jaio zen. In vitro ernalketa ikertu zuen eta giza gorputzetik kanpo obulu bat ernaltzea lortu zuen lehen pertsona izan zen.

9



1927 Marvin Minsky jaio zen. Adimen artifizialaren gurasoetako bat da, eta Massachusettseko Teknologia Institutuko (MIT) adimen artifizialeko laborategiaren sortzaileetako bat izan zen.

10



1943 Frances Northcutt ingeniaria jaio zen. Apolo 13 misioan, oxigeno-tanke baten leherketaren ondoren, programa informatiko batean lan egin zuen astronautak Lurrera onik itzul zitezen.

11



1956 Pierre-Louis Lions matematikaria jaio zen. Ekuazioen teoria deribatu partzial ez-linealetan azterteagatik eta Boltzmannen ekuazioari soluzio osoa aurkitzeagatik da ezaguna.

12



1919 Margaret Burbidge astrofisikaria jaio zen. Izar-nukleosintesia azaltzen parte hartzeaz gain, quasarrak eta galaxiak ikertu zituen.

13



1913 Harry Brearley metalurgialariak lehen altzairu herdoilgaitza lortu zuen. Altzairua eta kromoa nahastu, eta mikroskopioan aztertzeko azidoarekin tratatzean, erasoarekiko erresistentiak zirela ikusi zuen.

14



1848 Margaret Lindsay Huggins astronomoa jaio zen. William Huggins astronomoarekin batera, espektroskopian aitzindaria izan zen, eta *Atlas of Representative Stellar Spectra* (1899) argitaratu zuen.

15



1881 Elisabeth Schieman genetista jaio zen. Zereal garrantzitsuen (garia eta garagarra, esaterako) erlazio ebolutiboei buruz egin zituen lanek eragin handia duete gaur egungo landare-biologian.

16



1884 Hugo Gernsback idazlea jaio zen, zientzia-fikzioaren aitzindaria. Patente ugari lortu zituen, hala nola irradian soina hobeto hartzeko tresna bat edo argizari gabe depilatze metodo bat.

17



1902 Magda Staudinger biologo eta kimikaria jaio zen. Hermann Staudingerrekin batera, makromolekulen egitura kimikoa eta biologian dituzten aplikazioak aztertu zituen.

18




1955 Taher Elgamal kriptologoa jaio zen. SSL protokoloaren garapenean lan egiteaz gain, logaritmo diskretuaren kalkularen konplexutasunean oinarritutako sinadura digitalaren eskema deskribatu zuen.

19



1830 Julius Lothar Meyer kimikaria eta medikua jaio zen. 1870ean lege periodikoaren aurkikuntza aurkeztu zuen. Lege horren arabera, elementuen propietateak masa atomikoaren funtzio periodikoak dira.

20



1970 Nazioarteko Astronomia Batasunak **Sofia Kovalevskaya** izena jarri zion Ilargiaren krater bati. Ohore egin zion horrela erromani etniako matematikari errusiar ospetsu horri.

21



1973 Sergei Mikhailovitch Brin informatikaria jaio zen. Larry Pagerekin batera, Google sortu zuen 1996an, biak konputazio zientzietako graduondoko ikasleak zirenean.

22



1949 Mary E. Power ekologoa jaio zen. Aitzindaria da ibaietako sare trofikoak aztertzen, eta, besteak beste, arrainen, hegaztien, ornogabeen eta algen arteko elkarreaginak aztertu ditu.

23




1982 Chanda Prescod-Weinstein partikulen kosmologo teoriko eta fisikoa jaio zen. Besteak beste, axioa materia ilunaren osagai gisa, edo inflazio kosmikoa ikertu ditu.

24



2006 Christian Ewert artearen historialaria eta arkitektura andalustarraren ikertzaile hoberenetakoa jaio zen. Medina Azaharatik Zaragozako Aljaferia jauregiraino hartzen duten azterlan nabarmenak egin zituen.

25



1884 Nathalie Demassieux kimikaria jaio zen. Berunezko gatz halogeno konplexuak eta sulfato bikoitzen deshidratazioa aztertu zituen, eta ondare handia utzi zuen irakaskuntzaren eta dibulgazioaren alorretan ere.

26




1873 Lee De Forest jaio zen. Triodoa deskubritu zuen, soinu-uhinak anplifikatu eta bolumena kontrolatzen zuena. Esate baterako, gitarra elektrikoetan erabilgarri audio-anplifikagailuaren aurrekoa izan zen.

27



1858 Giuseppe Peano matematikari eta logikoa jaio zen. Bere lana lagungarria izan zen logika matematikoan eta zenbakien teorian, eta hari zor zaio Peanoren kurba deiturikoa, planoan betetzen duen kurbaren lehen adibidea.

28




1859 Erregistraratutako **eguzki-ekaitz** indartsuena hasi zen. Distira izugarria egin zuen aurora borealak, eta leku urrunetan ikusi ahal izan zen, adibidez Japonian, Floridan eta baita Espainian ere.

29



1989 Peter Scott ornitologo eta kontserbazionista hil zen. Naturarentzako Mundu Funtza (WWF) sortzen lagundu zuen eta haren logotipo ezaguna diseinatu zuen, panda hartza.

30



2013 Science aldizkariak argitaratu zuen Bristol, Calgary eta Urbinoko Unibertsitateetako ikertzaileek **Groenlandiako arroila handia** aurkitu zutela.

31



1949 David Politzer fisikari teorikoa jaio zen. David J. Gross eta Frank Wilczekin batera, Fisikako Nobel saria jaso zuen kromodinamika kuantikoan askatasun asintotikoa aurkitzeagatik.

1



Mundo Artrópodo

Mundo Artrópodo Elkartearen ziuur daude, eurek bezalaxe, entomologiaren zale gehiagok ere uneren batean beren buruari galdetuko ziotela zergatik ez dagoen zientzia hori zabaltzen duen aldizkariarik kioskokoak, Internet edo sare sozialak gainezka betetzen dituzten aldizkari ugarien artean. Adierazi dutenez, badaude naturari buruzko zenbait aldizkari oso onak, eta horietan artikuluren batean zeharka ukitu dute artropodoen gaia. Hala ere, ez zegoen intsektuei eta araknidoei bakarrik

eskaintako argitalpenik, entomologia amateurrarekin zuzenean lotutako gaiak jorratzen zituenik.

Horregatik sortu zen, 2017an, Mundo Artrópodo doako aldizkaria, zaletasun hori askatzeko eta intereseko gai komunak jorratzeko espazio bat aurkitzeko, honako hauen bidez: espezieak identifikatzen laguntzea, argazkigintza entomologikoari buruzko artikulua, intsektu-familia jakin batzuei buruzko monografikoak, eta



entomologiarako garrantzitsuak diren pertsoneri eta erakundeei egindako elkarrizketak.

<https://www.mundoartropodo.com/>

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
26	27	28	29	30	31	1
						 <p>1959 Anne Szarewski medikua jaio zen. Frogatu zuen, tratamendurik gabe, zerbixeko patologien lehen zantzuek desagertzeko aukera handiagoa zutela emakumeek erretzeari uzten bazioten.</p>
2	3	4	5	6	7	8
 <p>1883 Rudolf Weigl immunologoa jaio zen. Tifusaren aurkako txertoa egin zuen, gaixotasun horren aurka eragina izan zuen lehena.</p>	 <p>1814 James Joseph Sylvester matematikaria jaio zen. Matrizeen, aldaezin aljebraikoen, zenbakien, partizioen eta konbinatoriaren teoretan lagundu zuen.</p>	 <p>1929 Elizabeth Roemer astronomoa jaio zen. Beste lorpen batzuen artean, 1975ean Temisto aurkitu zuen, Jupiterren satelitea, Charles T. Kowalekin batera.</p>	 <p>1908 Josue de Castro mediku eta aktibista jaio zen. FAO erakundeko buru izan zen. Bere lan ezagunena <i>Geopolítica del hambre</i> da, non desnutrizioaren arazoaren konplexutasunari buruz argibideak ematen dituen.</p>	 <p>1952 Ida A. Bengtson bakteriologoa hil zen. Organismo anaerobioak ikertu zituen, eta <i>Clostridium botulinum</i>, toxina botulinikoa sortzen duen bazilioa, sailkatzeko egin zuen lanagatik da ezaguna.</p>	 <p>1917 John Cornforth kimikaria jaio zen. 1975ean Kimikako Nobel saria jaso zuen entzimatikoki katalizatutako erreakzioen estereokimikan egindako lanagatik.</p>	 <p>1903 Marthe Louise Vogt farmakologoa jaio zen. Ekarpen garrantzitsuak egin zituen neurotransmisoreek burmuinean duten eginkizuna ulertzeko, batez ere epinefrinak.</p>
9	10	11	12	13	14	15
 <p>1788 Segismundo Malats eta Hipolito Estevez albaitariak Espainian albaitaritzamedikuntzako bi eskola sortzeko plana egiteko enkargua jaso zuten, bata Madril eta bestea Kordoban.</p>	 <p>1749 Émilie du Châtelet matematikari eta fisikaria hil zen. Isaac Newtonen lanak frantsesera itzuli zituen eta haren teoriak zabaltu zituen.</p>	 <p>1911 Elke Mackenzie botanikaria jaio zen. Likenen azterketan espezializatu zen eta poloetako esplorazio emankorrak egiteagatik nabarmendu zen.</p>	 <p>2004 Mallorca uharteak adopziozko seme izendatu zuen Odón de Buen. Espainiako Ozeanografia Institutuaren sortzailea den naturalista ospetsu horren ondarea berreskuratzen ari dira azken urteotan.</p>	 <p>1924 Chana Malogolowkin-Cohen genetista jaio zen. Aitzindariak izan zen Brasilen frutaeuliaren genetika aztertzen eta eltxoen bidez birusen transmisioa saihesteko tekniketari.</p>	 <p>1959 Lunik 2 zundak ilargiaren kontra jotzeko helburua bete zuen, zehazki Mare Imbrium, jaurti eta bi egunera.</p>	 <p>1924 Thereminaren patentea onartu zen, kontaktu fisikorik gabe kontrolatzen den musika-tresna elektronikoa.</p>

ASTELEHENA

30

ASTEARTEA

1



1993 Mildred Vera Peters onkologo eta ikertzaile klinika hil zen. Frogatu zuen tumorektomia eta erradiazio mastektomia bezain eraginkorra zela bularreko minbizia tratatzeko.

ASTEAZKENA

2



1893 Katō Sechi kimikari organikoa jaio zen. RIKEN Ikerketa Fisiko eta Kimikoko Institutuan lan egin zuen Tokion, eta aitzindari izan zen espektroskopia bidezko analisisan.

OSTEGUNA

3



1951 Kathryn Dwyer Sullivan geologo eta espazio- eta itsas-esploratzailea jaio zen. Ontziz kanpoko jarduera bat egin zuen lehen astronauta izan zen, eta Challenger orbitan erregeiz hornitu zitekeela frogatu zuen.

OSTIRALA

4



1951 Henrietta Lacks hil zen. Bere baimenik gabe, umetokian zuen minbiziaren zelulak hartu zizkioten, eta HeLa izeneko zelula-hazkuntza hilezkorren lehen lerroa sortu zen.

LARUNBATA

5



1871 Elizabeth Coleman White nekazaritzan aditua jaio zen. Frederick Vernon Coville botanikariarekin kolaboratu zuen, ahabia landatua garatu eta merkaturatzeko.

IGANDEA

6



2022 Lehen aldiz ospatu zen **Geodibertsitatearen Nazioarteko Eguna**. Lurraren prozesu dinamikoak hobeto ulertzea du helburu.

7



1919 Henriette Avram programatzaile eta analista jaio zen. MARC 21 formatua garatu zuen dokumentuak modu automatizatuan katalogatzeko, eta nazioarteko liburutegi-komunitatean aplikatu zen.

8



1872 Gertrude Lilian Elles geologo eta paleontologoa jaio zen. Ethel Woodekin batera *Monograph of British Graptolites* idatzi zuen, urte askoan paleontologian erreferentziatzko lana izan zena.

9



1901 Germaine Benoît ingeniari kimikoa jaio zen. Batez ere, substantzia sinpatikomimetikoen azterketan egindako ekarpenagatik da ezaguna.

10



1967 Indarreen ipini zen **Espazio Ultraterrestreari buruzko Ituna**. Espazioaren nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko esparru juridikoa da, eta 100 herrialdek baino gehiagok berretsi dute.

11



1854 Henriette Delamarre de Monchaux geologo eta paleontologoa jaio zen. Falun ongarrietan aditua izan zen. Interes geologiko handiko ongarririk dira nekazaritzako lurzoruz buztintu azidoetarako.

12



1964 SESBk lur-orbitan jarri zuen **Vosjod 1** ontzia. Hainbat laguneko tripulazioa zuen lehen ontzia izan zen, eta espazio-jantzirik gabeko lehen hegaldia.

13



2016 Maria Isabel Andrade zientzialariak Elikaduraren Mundu Saria jaso zuen. Batataren barietate biofortifikatuei buruz egindako lanak Afrikan elikadura-segurtasuna hobetzen lagundu zuen.

14



1928 Mary Tsingou fisikari eta matematikaria jaio zen. MANIAC ordenagailuaren lehen programatzaileetako bat izan zen.

15



1859 Augusta Déjerine-Klumpke medikua jaio zen. Plexu brakialaren beheko sustraien paralisia deskribatu zuen, Duchenne eta Erben plexoaren goiko lesioen deskribapenen ondoren.

16



1920 Alicia Dussán de Reichel arkeologo eta antropologoa jaio zen. Giza eta gizarte-zientzien garapenean aitzindari izan zen Kolonbian, bai eta genero-ikerketetan ere Karibean.

17



1771 Historia Naturaleko Errege Kabinetea ireki zen jendearentzat, gaur egun Natur Zientzien Museo Nazionala dena. Bilduma hau izan zen jende guztiak eskura izan zuen lehena, izaera soziala edozein izanda ere.

18




2019 Sandra Myrna Díaz eta **Joanne Chory** biologoek Asturiaroko Printzesa saria jaso zuten, landareen biologia ezagutzen laguntzeagatik.

19



1835 Amanda T. Jones asmatzailea jaio zen. Elikagaien kontserbazioari aplikatutako teknologian lan egin zuen, eta ezaguna da elikadura hutsean ontziratze sistema berri bat asmatu zuelako, Jonesen metodoa.

20



1891 James Chadwick fisikari eta Nobel sariduna jaio zen. Neutroiaren aurkikuntzagatik da ezaguna mundu osoan, karga garbirik gabeko partikula subatomikoa, alegia.

21



1906 Elsie Widdowson nutricionista jaio zen. Robert McCance medikuarekin batera, II. Mundu Gerran britainiarrei banatu zitzaizkien elikagaiei bitaminak gehitzen zitzaizkien gainbegiratu zuen.

22



1905 Karl Guthe Jansky irradi-ingeniarria jaio zen. Frogatu zuen 14,6 metroko uhin-luzerarekin jasotako erradiazioa ez zettorrela eguzkitik, Sagitarioko konstelaziotik baizik.

23



1920 Tetsuya Fujita meteorologoa jaio zen. Bere ikerketek goitik behera irauli zuten ekaitz elektrikoek, tornadoek, urakanei eta tifo larriek buruzko ezagutza.

24



1836 János Irinyi kimikariak pospolo isil eta ez-leherkorrak patentatu zituen. Pospoloen buruan fosforoa berundioxidoarekin nahastea izan zuen ardatz bere asmakizunak.

25




1971 Elena García Armada industria-ingeniarria jaio zen. Haurren lehen exoeskeleto biotikoa sortu zuen, paralisia duten haurrak berriro oinez ibili ahal izateko.

26



1994 Andrew Wiles matematikariak Fermaten Teorema Handiaren ebazpena iragarri zuen.

27



1904 José Val del Omar zinemagile eta asmatzailea jaio zen. Zenbait berrikuntza tekniko sartu zituen filmetan, *Tríptico elemental de España* filmean, adibidez.

28



1897 Marjory Warren medikua jaio zen. Medikuntza geriatriko modernoaren amatat hartu da.

29



1791 Anne Kingsbury Wollstonecraft botanikaria jaio zen. Kubako flora aztertu zuen eta, 1820ko hamarkadaren erdialdean, eskuizkribu ilustratu bat sortu zuen: *Especímenes de plantas y frutos de la isla de Cuba*.

30



1909 Homi J. Bhabha fisikaria jaio zen. Indiako torio-erreserba handiak erabiltzea planteatu zuen, uranio-erreserba urrien ordean, energia atomikoaren programa hasteko.

31



1831 Paolo Mantegazza mediku, neurologo, fisiologo eta antropologoa jaio zen. Kokatik kokaina isolatu zuen eta gizakiengan zituen eragin anestesikoak ikertu zituen.

1

2

3



El Diario del Jardín Botánico

El Diario del Jardín Botánico doako argitalpena da, eta 2008ko apirilean sortu zen, erakunde zientifiko horretan sortutako berriak ahalik eta modurik osatuenean eta zehatzenean ezagutarazteko, duen 250 urte baino gehiagoko historia ahaztu gabe. El Diario del Jardín Botánico argitalpenak erakundeko zientzialariek egiten dituzten ikerketa-proiektuen eta aurkikuntzen berri ematen digu; museo bizi horrek dituen bildumak erakusten dizkigu, bai eta bere artxiboko, liburutegiko edo belar-bildumako altxorak ere; ikertzaileekin izandako elkarrizketa sakonak eskaintzen ditu haien lanari buruz

gehiago jakiteko; erakunde zientifiko horrek Interneten dituen baliabide ugariak zabaltzen ditu; gure instalazioetan egiten diren zientzia-, dibulgazio- eta kultura-jardueren agenda azaltzen du, eta urtaro bakoitzean ederren dauden erakusketak-lorategiko txokoak gomendatzen ditu.

Argitalpena doan banatzen dute Lorategi Botanikoak berak, Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko (CSIC) beste ikerketa-zentro batzuek eta nazioko eta nazioarteko erakunde kultural eta zientifikoek. Modu digitalean ere eskura daiteke sarbide irekian.



<https://rjb.csic.es/el-rjb/el-diario-del-jardin-botanico/>

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
28	29	30	31	1  <p>1755 Lisboako Lurrikara Handia gertatu zen. Aditu ugari bildu ziren haren azalpen zientifikoa bilatu nahian, eta sismologia modernoaren oinarriak ezarri zituen.</p>	2  <p>1954 Pere Alberch biologoa jaio zen. Natur Zientzien Museo Nazionaleko zuzendari izan zen, ikerketa-sailak eraberritu zituen, bildumen modernizazioa bultzatu zuen eta erakusketa pizgarriak egin zituen.</p>	3  <p>1887 Eileen Hendriks geologoa jaio zen. Bere prestakuntzaren araberako kategoria profesionallean sartzerik izan ez bazuen ere, Devoneko eta Kornualleseko (Britainia Handia) geologiari buruz egindako lanagatik saritu zuten.</p>
4  <p>1933 Charles Kuen Kao ingeniari elektriko eta Nobel sariduna jaio zen. Aitzindaria izan zen telekomunikazioetan zuntz optikoa garatzen eta erabiltzen.</p>	5  <p>1947 Sallie W. Chisholm itsas biologo eta ozeanografoa jaio zen. Itsas fitoplankton ugariena (<i>Prochlorococcus</i>) aurkitu zutenetako bat izan zen, eta aditua da ozeanoetako mikrobioen ekologian eta bilakaeran.</p>	6  <p>1886 Ida Barney astronomoa jaio zen. 150.000 izarren neurri astrometrikokoak biltzen dituzten bere 22 liburukiengatik da ezaguna.</p>	7  <p>2019 Margarita Salas biokimikaria hil zen. Biologia molekularra bultzatu zuen Espainian eta DNA entzima polimerasa isolatu zuen phi 29 fagoa oinarri hartuta. Aurkikuntza horri esker, DNA zabaltea lortu zen.</p>	8  <p>1917 Kamal Ranadive zientzialaria jaio zen. Indiako ehun-laboreen lehen ikerketa-laborategia ezarri zuen, eta minbizien eta birusen arteko harremanari buruz egindako lanagatik da ezaguna.</p>	9  <p>1850 Ignacio Bolívar jaio zen, bere garaiko entomologo bikainenetako bat. Natur Zientzien Museo Nazionaleko zuzendari gisa, bere hastapenetan izan zuen bikaintasuna berreskuratu zuen museoa.</p>	10  <p>1935 Igor Novikov astrofisikari teoriko eta kosmologoa jaio zen. Novikoven autokonsistentzia-printzipioa azaldu zuen, denboran zeharreko bidaietako paradoxen arazoak konpontzeko.</p>
11  <p>1930 US1781541 patentea eman zitzaion Albert Einsteini eta Leó Szilardi beren asmakuntzagatik: Einstein hozkailua. Urteetan zehar etxeko hozte-teknologia hobetzeko lan egin zuten bi fisikari horiek.</p>	12  <p>1926 Taneko Suzuki biokimikari eta nutrizionista jaio zen. Proteinen kimikan eta arrain-proteinen bidezko elikagaiak egiten aditua izan zen, <i>Marinbeef</i> kontzentratua kasu.</p>	13  <p>1893 Mary Ellinor Lucy Archer botanikari eta liburuzaina jaio zen. Saillkapen hamartar unibertsala CSIRON sartzea bultzatu zuen, eta aitzindaria izan zen liburutegien arteko maileguren kontzeptuan.</p>	14  <p>1962 Fang Fang Kullander jaio zen. Txinako akuikultura eta Myanmaroko ur kontinentalen ezagutzan egindako ekarpenengatik da ezaguna. ECOCARP proiektu sino-europarra sortu zuen.</p>	15  <p>1888 Agnes Sjöberg albaitaria jaio zen. Europako lehena izan zen, eta, seguruenik, munduko lehena, albaitaritzako doktoregoa defendatzen (zaldien begietako jarioari buruzkoa).</p>	16  <p>1974 Areciboko (Puerto Rico) Irrati-teleskopiotik, Areciboko mezua bidali zen kanpoko espaziora. Eguzki-sistemaren, Lurraren eta gizakiaren egoerari buruzko datuak biltzen ditu.</p>	17  <p>1935 Matilda Evans medikua hil zen. Afroamerikarrei, batez ere haurrei, arreta mediko hobe ematearen alde lan egin zuen.</p>



1863 Odón de Buen naturalista eta ozeanografoa jaio zen. Bere ekarpen ugariengatik, 1914an Espainiako Ozeanografia Institutua sortzea izan da nabarmena.



1847 Carl Friedländer mikrobiologoa jaio zen. Pneumonia eragiten duen *Klebsiella pneumoniae* bakterioa identifikatu zuen. Friedländerren baziloa esaten zaio bakterio horri.




1984 SETI Institutua sortu zen, unibertsoan bizitza adimenduna bilatzen duen irabazi-asmorik gabeko erakundea.



1871 Clotilde-Camille Deflandre medikua jaio zen. Paul Carnotekin batera, eritropoyetina aurkitu zuen, globulu gorriak (eritroitoak) ekoizteko estimulatzaile natural nagusia.



1880 Pauline Ramart kimikaria jaio zen. Erradiazio ultramarearen espektroaren eta erradiologiarekin lotutako erreakzio kimikoen arteko erlazioari buruzko lanak egin ditu.



1927 Erik Rotheim ingeniari kimikoak lehen aerosol-pote balbuladuna patentatu zuen, produktu eta sistema propulstzaileak eduki eta eman zitzaizkiena. Lainoztagailu modernoaren aitindaria izan zen.



1914 Bessie Blount Griffin fisioterapeuta jaio zen. Eguneroko zereginak egiteko modu berriak irakatsi zitkien eskuak egzaltuak zituzten soldadu ohiei, eta anputatuentzako elikadura-sistema asmatu zuen.



1937 Martha Bilotti-Aliaga estatistikaria jaio zen. Estatistika irakasteko metodo berritzaileak garatu zituen, ikasleen artean esperitu kritikoa eta arrazoiketa piztuz.




1907 Ruth M. Patrick botanikari eta limnologoa jaio zen. Aitzindaria izan zen ur gezako ekosistemen osasun-egoera diagnostikatzeko diatomeak erabiltzen.



2021 Conxoko Oturuntzako Basoko **haritzak** (*Quercus robur L.*) **Espainiako Urteko Zuhaitza** lehiaketa irabazi zuen 2022an. 250 urte baino gehiago ditu zuhaitz horrek, eta Rosalia de Castrok defendatu zuen salaketa ekologiko aitzindari batean.




1924 Johanna Döbereiner nekazaritza-ingeniarria jaio zen. Nitrogenoaren finkapen biologikoa aztertu zuen, eta Brasilgo soja-soroetan ogarri nitrogenuarekiko mendekotasuna gutxitzen lagundu zuen.



1849 John Fleming ingeniaria jaio zen. Huts-diodoa asmatu zuen, elektronikaren hasieratzen hartzen den mugarria.



1950 Laktosa gutxi duten esnekiak ekoizteko metodo baten patentea eskatu zuen. Esnean dagoen laktosaren digestio entzimatikoa oinarritzen da.




CSIC Investiga

CSIC Investiga aldizkaria 2020an sortu zen, erakunde horrek ikerketa-gai jakin baten inguruan egiten duen jardura zabaltzeko asmoz. Covid-19a izan zen lehen zenbakiaren protagonista, eta hurrengo edizioetan hainbat gai jorratu ziren, hala nola minbizia, trantsizio energetikoa, gizarte digitalaren erronkak edo egitura biologiko konplexuenaren (giza garuna) gakoak eta funtzionamendua. Beste zenbaki monografikoetako batean, berriz, CSICen barruan Horizonte 2020

programarekin loturik egindako ikerketak zabaldu ziren. Europar Batasuneko ikerketa- eta berrikuntza-programa handiena da Horizonte 2020.


Aldizkariaren zenbaki guztiak Digital.CSIC gunean kontsultatu eta deskargatu daitezke. Sarbide irekiko diziplina anitzeko gordailu zientifikoa da Digital.CSIC, eta bertan jasotzen dira CSICeko zentroetan eta institutuetan egindako ikerketan lanaren emaitzak.



<https://digital.csic.es/handle/10261/229367>

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
25	26	27	28	29	30	1
						 <p>1934 Fanny Hesse ikertzailea hil zen. Hazkuntza-inguruneetan agarra sartu zuen solidogarrigisa laborategian mikroorganismoak hazteko.</p>
2	3	4	5	6	7	8
 <p>1913 Natur Zientzien Museo Nazionalan Dippi eskeletoaren erakusketa inauguratu zen. 27 metroko diplodoko baten eskeletoaren erreplika da, eta Espainian paleontologia ezagutarazten lagundu du.</p>	 <p>1910 Georges Claude kimikari eta asmatzaileak bere neoziko lanpara aurkeztu zuen Pariseko Automobilaren Aretoan: neoziko bi hodi gorri erakutsi zituen, 12 metro luzekoa bakoitza.</p>	 <p>1899 Ethel Currie geologoa jaio zen. Paleontologiaren arloan ikertu zuen, eta itsas trikuen eta goniatitidoen (ordena desagertua, nautiloideetatik abiatuta eboluzionatu zuena) fosilak aztertu zituen.</p>	 <p>1624 Caspar Bauhin botanikari eta medikua hil zen. Nomenklatura binominala sartu zuen organismoen sailkapenean. Balbula ileozekala Bauhinien balbula gisa ezagutzen da haren omenez.</p>	 <p>1883 Margaret Morse Nice ornitologo eta etologoa jaio zen. Txolarreei buruz egindako ikerketagatik da ezaguna, eta <i>Estudios sobre la historia vital del gorrión cantor</i> lanaren egilea da.</p>	 <p>1924 Mary Ellen Rudin matematikaria jaio zen. Aieru ospetsuekiko kontra-adibideen osaearen nabarmendu zen. Dowker espazioa da ezagunena.</p>	 <p>1919 Julia Robinson matematikaria jaio zen. Ekuazio diofantikoak eta erabakigarritasunaren teoria ikertu zituen: Hilberten hamargarren problemaren (Matiyasevichen teorema) askaezintasuna frogatzen lagundu zuen.</p>
9	10	11	12	13	14	15
 <p>1906 Grace Murray Hopper informatikaria jaio zen. Aitzindaria izan zen konputazio-zientzien munduan, eta Mark I ordenagailua erabili zuen lehen programatzailea izan zen.</p>	 <p>1897 Carmen Aldecoa ozeanografoa jaio zen. 1918an, Espainiako Ozeanografia Institutuak kontratatu zuen lehen emakume zientzialaria izan zen. Gaixotasun batengatik postua utzi eta irakaskuntzan aritu zen.</p>	 <p>1909 Toshiko Yuasa fisikari nuklearra jaio zen. 1954an artikulu bat argitaratu zuen Bikini atoloian egiten ari ziren hidrogeno-bonben proben arriskuez ohartarazteko.</p>	 <p>1918 Oleg Gazenko zientzialaria jaio zen. Animaliak espaziora bidaltzeko programa sobietarrean parte hartu zuen. Laika txakurra hautatu eta entrenatu zuen espaziora bidaltzeko, Lurra orbitatu zuen lehen animalia.</p>	 <p>1867 Kristian Birkeland fisikari eta asmatzailea jaio zen. Aurora boreala ikertu zuen eta sistema industrial bat asmatu zuen airearen nitrogenoa finkatzeko eta ongarririk ekoizteko erabiltzeko.</p>	 <p>2000 Lehen landarearen (<i>Arabidopsis thaliana</i>) genomaren sekuentzia osatu zen, eta ikerketa-eredu gisa ezarri da espezie hori.</p>	 <p>1612 Simon Marius astronomo alemaniarrek Andromeda galaxia lehenbizikoz behatu zuen, eta «adar baten bidez ikusitako kandela baten sugarraren antzekoa» zela adierazi zuen.</p>

16



1905 Piet Hein ingeniari, asmatzaile eta poeta jaio zen. Joko berriak diseinatu zituen, hala nola Soma kuboak (puzzle mekanikoa) edo Hex (oinarri matematiko sakonak dituen joko abstraktua).

17



1913 Mary Kenneth Keller informatikaria jaio zen. BASIC programazio-lengoaiaren garatzaileetako bat izan zen eta Hezkuntza Ordenagailuak Erabiltzeko Elkartearen (ASCUE) sortzaileetako bat.

18



1852 Leonardo Torres Quevedo ingeniaria jaio zen. Xakelaria asmatu zuen, xakean jolasteko gai zen lehen ordenagailu mekanikoa, bai eta telekinoa ere, irrati-uhinen bidez tresnak kontrolatzeko.

19



1945 Claudine Hermann fisikaria jaio zen. Egoera solidoa fisikan aditua zen, eta maila instituzionalean lan egin zuen emakumeen egoera hobetzeko zientzian, oro har, eta fisikan, bereziki.

20



1919 Juliotar egutegiaren arabera, **Isaac Asimov** biokimikako irakasle eta idazlea jaio zen. Zientzia-dibulgazioa eta zientzia-fikzioa lan ezagunak argitaratu zituen, hala nola *Serie de la Fundación o Yo, Robot*.

21



1898 Marie eta Pierre Curie radioa aurkitu zuten. Uraninita lagin batetik uranioa kendu ondoren, ikusi zuten uraninita oraindik erradioaktiboa zela radioa zuelako, elementu kimiko berria.

22



2015 Nazio Batuen Batzar Nagusiak urtero Nazioarteko Egun bat sortzea onartu zuen, emakumeek eta neskek zientzian eta teknologian duten rol kritikoa aintzat hartzeko: **otsailaren 11**.

23



1857 Helen Abbott Michael kimikaria jaio zen. Fitokimikaren sortzaileetako bat da, landareen konposizio kimikoaren eta haien hazkunderaren arteko erlazioa ikertu baitzuen.

24



1906 Reginald Fessenden ingeniari kanadarrak musika zuen lehen **irradi-transmisioa egin zuen**. Reginaldek berak *O Holy Night* gabon-kanta jo zuen biolinarekin.

25



1883 Frances Wood kimikari eta estatistikaria jaio zen. Mahatsaren polimerizazioa eta hartidura lantzen hasi zen, baina gero estatistika medikora aldatu zituen bere interesak.

26



2004 Sumatra-Andaman lurraldean lurrikara izan zen, inoiz izan den lurrikaririk handienetakoa bat (9,3 Mw edo uneko magnitudea). Ondoren, 280.000 hildako baino gehiago eragin zituen tsunami suitszaila bat izan zen.

27



1924 Betty Jean Jennings Bartik programatzailea jaio zen. ENIAC konputagailuaren jatorrizko programatzaileetako bat izan zen.

28



1890 Berthe Kolochine-Erber biologoa jaio zen. Leptospirosian aditua zen, *Leptospira interrogans* bakterioak eragiten duen gaixotasun zoonotikoa.

29




1899 Vera Fedorovna Gaze astronomoa jaio zen. Emisio-nubelosak eta planeta txikiak ikertu zituen.

30



1924 Edwin Hubble astronomoak Esne Bidea ez **bezalako beste galaxia** batzuk zeudela iragarri zuen. Bere behaketetan Hooker teleskopioa (2,54 m-koa) erabili zuen, garai hartako munduko teleskopiorik indartsuena.

31



1930 Jaime Escalante matematika-irakaslea jaio zen. Jatorri xumeko ikasleak matematikako ezagutzengatik nabarmentzea lortu zuen. Bere historia kontatu zuen *Stand and Deliver* filmak.

iDescubre

iDescubre Andaluziako zientzia-dibulgazioari buruzko aldizkari digitala da eta Descubre fundazioak argitaratzen du. Descubre fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta Andaluziako 24 ikerketa- eta dibulgazio-zentro nagusiak biltzen ditu patronatukide gisa.

2015eko abenduan sortu zen aldizkaria, eta publiko guztiei hurbiltzen die zientzia. Era berean, Andaluziako komunitate zientifikoaren lanetik sortzen den jakintza

partekatzen du, modu zorrotz baina hurbilean. Hala, ikertzaileen, dibulgatzaileen eta komunikatzaileen topagunea da gizartearekin. Gainera, aurrerapen zientifikoaren erakusle-hoia da, eta gai sakonak jorrotzen dituzten atalak ditu eguneroko zientzia nabarmentzeko beste atal batzuekin batera. Guztia zientziako eta komunikazio zientifikoaren profesionalen modu hurbilean kontatua, edukien zorrotasuna eta ulermena bermatzeko.

<https://idescubre.fundaciondescubre.es/revista/>

The screenshot shows the iDescubre magazine website. At the top, there is a navigation bar with 'iDESCUBRE REVISTA' and links for 'PRESENTACIÓN', 'EDITORIAL', 'SUSCRIBETE', and 'COLABORA'. Below this, there are several article teasers. One features 'Legumbres: las proteínas del futuro' with a date of '15 JUN 2023'. Another features 'Enfermedades Raras: qué sabes sobre estas patologías poco frecuentes' with a date of '18 FEB 2023'. A third features 'La ciencia y los derechos de los animales' with a date of '10 DIC 2022'. On the right side, there is a green box with the text '¿QUIERES SER EL PRIMERO EN ENTERARTE DE TODO?' and a 'SUSCRIBETE' button. Below that, another green box says '¿HAY ALGO QUE QUIERAS APORTAR A LA REVISTA?' and 'ENVÍANOS TU ARTÍCULO'.

EGUTEGI 2025

URTARRILA

L	M	X	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

OTSAILA

L	M	X	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

MARTXOA

L	M	X	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

APIRILA

L	M	X	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

MAIATZA

L	M	X	J	V	S	D
		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

EKAINA

L	M	X	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

UZTAILA

L	M	X	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

ABUZTUA

L	M	X	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

IRAILA

L	M	X	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

URRIA

L	M	X	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

AZAROA

L	M	X	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

ABENDUA

L	M	X	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				



Egutegi hau egiteko diruz lagundu digutenak:



Laguntzaileak:

CSICeko zentroak: Instituto Geológico y Minero de España, Instituto de Recursos Naturales y Agrobiología de Salamanca, Centro de Biología Molecular Severo Ochoa, Instituto Español de Oceanografía, Instituto Nacional de Investigación y Tecnología Agraria y Alimentaria, Museo Nacional de Ciencias Naturales, Centro de Estudios Avanzados de Blanes, Instituto de Investigación en Inteligencia Artificial, Centro Nacional de Microelectrónica, Instituto de Ciencias del Mar.

Discapacitados, Mujeres con Ciencia, Comisión Mujeres y Geología - Sociedad Geológica de España, Asociación Española para el Avance de la Ciencia, Círculo Escéptico, Universitat de les Illes Balears, PRISMA Asociación para la Diversidad Afectivo-Sexual y de Género en Ciencia, Tecnología e Innovación, Universida Autónoma de Madrid, Europa Laica, Canaima, Universitat Autònoma de Barcelona, Civiciencia, Fundación Odón de Buen, Asociatia Secular-Umanistă din România.

Eskerrik asko, bereziki, SINC agentziari, informazio-iturri ezin hobea izateagatik.
Eta efemerideak biltzen, berrikusten eta itzultzen parte hartu duten pertsona guztiei: Mila esker!